

Funtsezko baliabideak:

Enpresa-proiektua garatzeko; kostuen murrizketa, hobetzeko aukera, iraukortasuna eta ordezkatzeko aukera izango ditugu kontuan. Gure negozioa ondo funtziona dezan, kontuan izango ditugun baliabideak ondorengoak dira:

Baliabide fisikoak:

Ordenagailuak eta mugikorrak beharko ditugu, bai bezeroei laguntza eskeintzeko, bai administrazioko lanak egiteko eta edozein akordio batentzako.

Guk arropa salduko dugunez, materiala beharko ditugu egiteko. Hauek hornitzaile baten bidez lortuko ditugu, udalarekin asoziatuta dauden enpresetatik (arropa eta telazko kontenedoreak hartzen dituztenekin), sasietatik edo honelakoetatik.

Hauek landu ahal izateko makinak eta kamioien laguntza beharko ditugu, kantitate handi bat saltzen badugu kostuak murrizteko eta beste empresa batekin irabaziak ez partekatzeko (barkideak kenduta). Biltegi baten laguntza ere beharko dugu, arropak eta gordetzeko eta beste toki bat, fabrikatzeko.

Finantza-baliabidea:

Mailegu baten eskaerarekin hasiko gara, hasierako gastuei aurre egiteko. Denborarekin eta saltzen hasten garen momentuan, hortik aterako ditugun irabaziak erabiliko ditugu finantziario bezala, arroparen salmentetatik.

Giza-baliabideak:

Makinetan egoteko langileak beharko ditugu, bezeroei laguntza eskaintzeko, produktuak garraiatzeko eta administrazio lanekin laguntzeko.

- Marketinean, Jon eta Naty egongo dira lanean, gehiago saldu ahal izateko eta bezero gehiago erakartzeko.
- Administrazioan Maddi eta Ligia egongo dira, guk izandako irabaziak kudeatzen.

Guk izango dugun webgunean, bezeroek haien arroparen diseinu pertsonalizatuak egiteko aukera izango dute. Diseinu horietaz lauok arduratuko gara.